# 1.998

# TIBURZIO DONEAREN FESTAK

# LEITZA 98



# PLAZAOLA

20. ZBK.

# LEITZAKO ALDIZKARIA

LEITZAKO UDALA



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
Herritar eta bisitari guztiei

AURRERA K.E.-KO BAZKIDEEK

C.D. AURRERA K.E.
LEITZA

Herritar eta bisitari guztiei
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Kaixo leitzarrok!

Pestak berriro ere gainean ditugula, eguneroko eginbeharrei beste urte batez aurre egin diogun honetan, aurten ere zer idazterik bada, pesta onak opatzeko besterik ez bada.

Gauza asko dira urtebeteko epean gertatu eta aipa daitezkeenak. Baina horietako asko, bere garaian indarra hartzen duten moduan, ahulduz doaz pixkana eta gure oroimenean besterik ez dira geratzen. Beste askok berriz pasabidean zain-arrasto handia uzten dute lekuko. Udalaren “martxa” honetan denok badakizue; onak, txarrak, hain onak ez baina txarrak ere ez direnak... Denak nahasten dira eta denak nahasten gaituzte.

Futbol zelai berria, igerilekuak berrituak, industrialdea ahal den neurrian osatuagoa... baina “zaharrentzat” egoitza?, eta gazteentzat lokala?, eta polikoroldegia?, eta...? Dena da, edota bihurtzen dugu beharrezko eta hori guztia ez da nahi bezain azkar iristen, ...

Hala ere pesta girora itzuliz, animo eta alaitasun handiz, ospatu, ez daudenaz gogoratu eta gaudenok eskeintzen dena ongi aprobetxatu.

Denon ardura da pestetan ere herria behar bezala zaintzea eta dugun bizigunea ahal den neurririk egokienean gerorako ere uztea. Eguneroko apostua dugu hau; dena guztiona eta guztia denon artean...

Pesta euskaldunak eta onak igaro. ongi izan!

Gora Tiburtzio donearen pestak

Pestetan ere gora Leitza

## ABUZTUAK 8, LARUNBATA • • • • • • • •

### • • • • • • • • • ERREPARTOAREN EGUNA

**Atsaldeko 4etan:** Herri guztian barrena pestetako egitarauen banaketa eginen da. Leitzeko gaztek, trikitilari, txistulari eta akordionen laguntzez, etxez etxe ibiliko dira.

Gogoan izan, dirue, kaxa giltzatue duenei bakarrik eman behar zaiela.

Atsaldean eta afal ondoren ZIZKUITZ txaranga ibiliko da kalez kale.

## ABUZTUAK 9, IGANDEA • • • • • • • • •

### • • • • • • • • • • • • • • UMEEN EGUNA

**Goizeko 8etan:** Diana txistularikin.
**Goizeko 10etan:** Zikliste gazteen (kadete mailakoak) karrera AIZAN K.E.k antolatue.
**Goizeko 11'30etan:** Aurrera K.E.ko pilotari gazteen partiduak plazan.
**Goizeko 12etan:** Umeen zanpantzarra.
**Goizeko 12'30etan:** Umeentzako jokoak plazan.
**Atsaldeko 5etan:** Txirrindulari umeen karrera herrian barrena.
**Atsaldeko 7etan:** Dantzarik plazan.
**Atsaldeko 8'30etan:** TRIKI TA KE taldearekin dantzaldie.





## ABUZTUAK 10, ASTELEHENA • • • • • • • •
## • • • • • • • • • • • • • • • PESTA BEZPERA

**Eguerdiko 12etan:** Herriko koadrilen arteko herri-kirolak (soskor apustue, zaku-saltoa,...)

**Eguerdiko 2etan:** Herri bazkarie herriko Gestorak antolatue.

**Atsaldeko 5etan:** EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA herri ekimenak antolatutako manifestazio ixila.

**Atsaldeko 6etan:** Pestei hasiera emanez, ezkilek jotzea eta etxafuego botatzea.

Ondoren Plazaola aldizkarin azalen lehiaketan irabazle izan den Berta Mihurari Herriko alkateak sarie emanen dio Udaletxeko sala nagusian.

**Gaueko 12etatik aurrera:** TRIKI TA KE taldea plazan.





## ABUZTUAK 11, ASTEARTEA • • • • • • • • • •

## • • • • • • • TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

**Goizeko 7'30etan:** Diana. Txistularik beren buelta eginen dute, eta Incansables txarangak berriz, Patxi Arrazola auzora joko du.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta Erriberako behiek plazan.

**Goizeko 10'30etan:** Meza kantatue, dantzarik eta herriko korporazioak lagundurik.

**Eguerdiko 12etan:** Aurrera K.E.ko ezpatadantzarik ezpatadantza dantzatuko dute herriko plazan.

**Eguerdiko 12'30etan:** Bertsolarik plazan.

**Atsaldeko 4etan:** Pesta guztietako astelehenik txarrena ahal den moduan pasatzeko herri siesta kakazelaien.

**Atsaldeko 6etan:** Erriberako behiek plazan.

**Atsaldeko 7'30etan:** Umeentzako kale animazioa GOLOKA taldearekin.

**Ordu berean:** Profesionalen arteko pilota partiduak Amazabal pilotalekuan Aspek antolatuak.

**Gaueko 12etatik aurrera:** GAUBELA taldearen emanaldie.





## ABUZTUAK 12, ASTEAZKENA • • • • • • • •
## • • • • • • • • • • • • • PESTA BIGARRENA

**Goizeko 7'30etan:** Diana. Txistularik bakarra aterako dira eta betiko buelta eginen dute.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta Erriberako behiek plazan.

**Goizeko 12etan:** Aurrera K.E.ko pilota eskolak antolatuta, afizionatuen arteko pilota partiduak.

**Atsaldeko 6etan:** Erriberako behiek plazan.

**Atsaldeko 7'30etan:** Jende guziaren gozamenerako, Aurrera K.E.ko dantzarien saio paregabea.

**Ordu berean:** Profesionalen arteko pilota partiduak Amazabal pilotalekuan Asegarcek antolatuak.

**Gaueko 12etatik aurrera:** ETZAKIT taldearekin dantzaldie.





# ABUZTUAK 13, OSTEGUNA • • • • • • • •

## • • • • • • • • • FESTA HIRUGARRENA

**Goizeko 7'30etan:** Diana. Txistularik beren ohizko buelta eginen dute, eta Incansablek berriz alde zaharra, Manuel Lasarte, Huarte Gotzaia eta San Jose auzoetan ibiliko dira.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta Erriberako behiek plazan.

**Goizeko 10'30etan:** Txirrindulari jubenilen karrera AIZAN K.E.k antolatue, herrin hasi eta bukatu.

**Eguerdiko 12etan:** Herri kirolak.

**Atsaldeko 6etan:** Erriberako behiek plazan.

**Atsaldeko 7'30etan:** Melanie eta Nerea Leitzako trikitilarien emanaldia.

**Ordu berean:** Aspen eskutik profesionalen pilota partiduak.

**Ondoren:** Irauli gazte asanbladak prestaturiko tanborrada herrikoia eta apari irekia plazan.

**Gaueko 12etatik aurrera:** Amaia eta Kristinarekin dantzaldia.





# ABUZTUAK 14, OSTIRALA • • • • • • • • • •

## • • • • • • • • • • • • • GAZTEEN EGUNA

**Goizeko 7'30etan:** Diana Leitzako txistulari bandarik hoberenarekin.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta Erriberako behiek plazan.

**Goizeko 11'30etan:** Kalderete txapelketa Udaletxeko karrapean.

**Eguerdiko 12etan:** Afizionatuen arteko pilota partiduak plazan.

**Atsaldeko 6etan:** Erriberako behiek plazan.

**Atsaldeko 7'30etan:** Harrijasotzailek.

**Gaueko 12etan:** Kontzertua plazan Irauli Gazte Asanbladak antolatue

BERRI TXARRAK – BERPIZTU – PARASMA – KASHBAD





## ABUZTUAK 15, LARUNBATA • • • • • • • • •

### • • • BIKOTEEN EGUNA (ezkonduak, arrimatuak, ...)

**Goizeko 7'30etan:** Azken Diana. Txistularik betiko buelta aldatu nahi badute, beraiek ikusiko dute, eta Incansables txarangak Amazabal auzora joan beharko du nahi eta nahi ez.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta Erriberako behiek plazan.

**Goizeko 12etan:** Herri kirolak eta sokatira saioa Areso eta Imotzen artean.

**Eguerdiko 2'30etan:** Aurrerako bazkideen bazkarie Labetxen.

**Atsaldeko 6etan:** Bikoteen entzierroa eta Erriberako behiek plazan.

**Atsaldeko 7'30etan:** Bikoteen ingurutxoa.

**Gaueko 12etatik aurrera:** ZABALETA BAND taldearekin dantzaldia.

**Ondoren "POBRE DE MI" Labetxeko ataritik hasita toki beren bukatuz.**






FIESTAS PATRONALES 98

## SABADO, 8 DE AGOSTO
## REPARTO DE PROGRAMAS

**4 de la tarde:** Los jóvenes de la localidad realizarán el reparto de los programas de fiestas acompañados de trikitixas, acordeones y txistus.

El dinero se deberá entregar sólo y exclusivamente a los jóvenes que lleven las cajas precintadas del C. D. AURRERA.

La charanga ZIZKUITZ actuará por las calles del pueblo a partir de la medianoche.

## DOMINGO, 9 DE AGOSTO
## DIA DEL NIÑO

**8 de la mañana:** Diana a cargo de los txistularis

**10 de la mañana:** carrera ciclista de categoría cadete organizada por AIZAN K. E.

**11'30 de la mañana:** Partido de pelota a cargo de la escuela de pelota del C. D. AURRERA.

**12 de la mañana:** Zampantzar txiki.

**12'30 de la mañana:** juegos infantiles en la plaza.

**5 de la tarde:** Carrera ciclista de alevines e infantiles por las calles del pueblo.

**7 de la tarde:** Actuación de dantzaris en la plaza.

**8'30 de la tarde:** Bailables a cargo de TRIKI TA KE.

## LUNES, 10 DE AGOSTO
## VISPERA DE FIESTAS

**12 del mediodía:** Herri kirolak a cargo de los jóvenes del pueblo.

**2 de la tarde:** Comida popular organizada por las GESTORAS.

**5 de la tarde:** Manifestación silenciosa organizada por la iniciativa popular EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA.

**6 de la tarde:** Se dará comienzo a las fiestas con el tradicional repique de campanas y posterior lanzamiento del cohete. Acto seguido, el alcalde hará entrega del premio a la vencedora del concurso de portadas de la revista PLAZAOLA: BERTA MIHURA

**12 de la noche:** Actuación del grupo TRIKI TA KE.

## MARTES, 11 DE AGOSTO
## DIA DE SAN TIBURCIO

**7'30 de la mañana:** Diana.

Mientras la charanga "Incansables" despertará a los vecinos de Patxi Arrazola, los Txistularis harán su habitual vuelta.

**9 de la mañana:** Encierro y vacas bravas en la plaza.

**10'30 de la mañana:** Misa cantada. Asistirá el pleno de la corporación municipal con la inestimable ayuda de los ezpatadantzaris del C.D. AURRERA.

**12 del mediodía:** Ezpatadantza a cargo de los dantzaris del C.D. AURRERA.

(Esperemos que sean los únicos protagonistas en animar la fiesta).

**12'30 del mediodía:** Actuación de bersolaris en la plaza.

**4 de la tarde:** Con el fin de pasar lo mejor posible el peor lunes de las fiestas, habrá siesta popular en "Kakazelai".

**6 de la tarde:** Vacas emboladas en la plaza.

**7'30 de la tarde:** Teatro de calle infantil a cargo del grupo GOLOKA.

**A la misma hora:** partidos de pelota profesionales en el frontón Amazabal a cargo de Aspe.

**12 de la noche:** Bailables con el grupo GAUBELA.

## MIERCOLES, 12 DE AGOSTO
## SEGUNDO DIA DE FIESTAS

**7'30 de la mañana:** Diana a cargo de los txistularis del pueblo.

**9 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.

**12 del mediodía:** partidos de pelota aficionados organizados por la escuela de pelota del C.D. AURRERA.

**6 de la tarde:** Vacas bravas en la plaza.

**7'30 de la tarde:** Actuación del grupo de danzas del C.D. AURRERA.

**12 de la noche:** Bailables en la plaza con el grupo ETZAKIT.

## JUEVES, 13 DE AGOSTO
## TERCER DIA DE FIESTAS

**7'30 de la mañana:** Diana. Además de los txistularis del pueblo, saldrá también la charanga "Incansables", que hará su recorrido por la parte vieja y los barrios Manuel Lasarte, Obispo Huarte y Plaza San José.

**9 de la mañana:** Encierro y vacas bravas en la plaza.

**10'30 de la mañana:** carrera ciclista de juveniles organizada por AIZAN K.E.

**12 del mediodía:** Deporte rural.

**6 de la tarde:** Vacas emboladas en la plaza.

**7'30 de la tarde:** Actuación de las trikitilaris de Leitza Melanie y Nerea.

**A la misma hora:** Partidos de pelota profesionales en el frontón Amazabal organizados por Aspe.

**Después:** Tamborrada amenizada por los jóvenes de la asamblea Irauli y cena al aire libre en la plaza.

**12 de la noche:** Bailables en la plaza con las trikitilaris Amaia y Kristina.

## VIERNES, 14 DE AGOSTO
## DIA DE LA JUVENTUD

**7'30 de la mañana:** Diana con los txistularis de Leitza.

**9 de la mañana:** Encierro y reses bravas en la plaza.

**11'30 de la mañana:** Campeonato de calderetes en el karrape del Ayuntamiento.

**12 del mediodía:** partidos de pelota aficionados en la plaza.

**6 de la tarde:** Vacas riberas en la plaza.

**7'30 de la tarde:** Levantadores de piedra.

**12 de la noche:** concierto en la plaza con los grupos BERRI TXARRAK – BERPIZTU – PARASMA – KASHBAD

## SABADO, 15 DE AGOSTO
## DIA DE LA PAREJA

**7'30 de la mañana:** Ultima diana. Los txistularis harán el mismo recorrido de siempre, y la charanga "Incansables" llevará su música al barrio Amazabal.

**9 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.

**12 del mediodía:** Deporte rural y exibición de sokatira con los equipos de Areso e Imotz.

**2'30 de la tarde:** Comida de los socios del C.D. AURRERA en los locales de la sociedad.

**6 de la tarde:** Encierro para las parejas y reses bravas en la plaza.

**7'30 de la tarde:** Ingurutxo de parejas (casados, arrimados, arrimadas,...).

**12 de la noche:** Bailables con el grupo ZABALETA BAND.

**A continuación "POBRE DE MI" con salida y final en la plazoleta de los locales del C.D. AURRERA.**

# OHARRAK • AVISOS

Incansables txarangak egunero, eguerdi eta atsaldean herriko baztarrak alaituko ditu. Gauez berriz, diana jotzen duten egunetan bakarrik aterako da.

BURU-HAUNDIAK atsaldero aterako dira txarangarekin batera.

UDALAK ez du XEXENETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.

EGITARAUA borondatearen truke banatuko da. UDALETXEAN, LIBURUDENDETAN eta TABERNETAN ere salgai egonen da.

XEXENETAN dabiltzenei eskapa bidea errezagoa egiteko barreren gainean inor ez esertzea eskertuko genuke.

AURRERAKO BAZKIDEEN BAZKARIRA joan nahi dunak, txartelak Abuztuaren 13ª baino lehen salgai izanen ditu GAZTAÑAGA eta MUSUNZAR tabernetan.

Aurten INGURUTXOA gaueko musikaren atsedenaldian izanen da, goizeko ordubiak aldera.

PLAZAOLAREN ANTOLATZAILEEN OHARRAK:

PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEK EZ DUTE ZERTAN ADOS EGON BEHAR BERTAN AGERTZEN DIREN IRITZI DESBERDINETAKO IDAZKIEKIN.

LANAK BIDALTZEN DITUZTENEK BEREN IZENAK JAKINARAZI BEHAR DIE ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEI, SOR DAITEZKEEN ARAZO LEGALAZ IDAZKIEN EGILEEN ERANTZUNKIZUNA IZANEN DIRELARIK.

GURE ESKERRIK ZINTZOENAK, ALDIZKARI HAU OSATZEKO, BERE LANAREKIN LAGUNDU DUTEN IDAZLE GUZTIEI. BAITA ERE, AZALAREN LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTENEI ETA BEREN ARGAZKIAK MUSUTRUK UTZI DIZKIGUTENEI ALDIZKARIA OSATZEKO.

La charanga INCANSABLES animará las calles del centro del pueblo todos los días al mediodía y por la tarde. Por la noche, sólo tocarán aquellos días en que salgan en la diana.

Los cabezudos saldrán todos los días por la tarde junto con la charanga.

El Ayuntamiento no se hará cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.

El programa de fiestas se repartirá a cambio de la voluntad. Además, se podra obtener en el Ayuntamiento, las librerías y los bares del pueblo.

Sería de agredecer que el público asistente a los espectáculos taurinos, se abstubiese de sentarse encima de las barreras, para así facilitar la huída de los que se vieren en apuros ante las embestidas de los astados.

Todo aquel socio del C.D. AURRERA que desee asistir a la comida de socios, deberá comprar la entrada antes del día 13 de Agosto en los bares GAZTAÑAGA y MUSUNZAR.

El INGURUTXO de la noche se bailará durante el descanso de los bailables de la plaza, hacia las dos de la madrugada.

# EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ... BAITA LEITZAN ERE !!

Ikusi makusi, zer dugu ikusi? Tabernan gaudela, zenbait gazte erderaz ari direla erreparatu dugu; dendara joanda, eskaera eta jolasak batipat erderaz gertatzen dira; kalean haurtzain dauden gurasoak erderaz ari dira elkarrekin; eta lantokietan ere erdera maiz aski entzuten dugu.

Ez; txuria den lekuan ez genuke beltzik ikusi nahi; bai, ordea, dagokionari berea eman; zenbaitetan, eguneroko gurpil zoroan itsututa, ez baikara gure muturren aurrean gertatzen denaz konturatzen... sudur-muturra erretzen zaigun arte.

Izan ere, Leitzak herri euskaldunaren ospea izanagatik, bestelako askorik ere badu: gazteen erderarako afizioa, kale-giro sasi-euskalduna, "kaixo-agurren" bitarteko zoragarrizko erdera batua, euskal atsaurez mozorrotutako erdera garbia...

Lehenago ere zerbait egin behar zela pentsatzen genuen; baina, tira, beste batzuk eginen zutelakoan, edo lehenago pausoa nola eman ez genekielako, gure asmoak bertan behera utzi genituen... Orain , ordea, deustarako gogorik izanez gero, jakin ezazu, jakin ezan, jakin ezak, euskararen alde lan egiteko gogoa bildu duen taldea sortu dela: Leitzako Euskal Herrian Euskaraz taldea, hain zuzen ere.

Ez da aspaldi elkartzen hasi garela, baina jadanik helburu batzuk paratu eta lanean hasi gara. Zer helburu? Hona batzuk: erderaz egiten duten gazteak euskarara bihur daitezen saiatzea; leitzarrok gure egunerokoan (lantegian, salerosketan, koadrilan, parrandan) euskaraz bizi ahal izatea; haurrek etorkizunean euskara gozoa erabil dezaten ezinbesteko tresnak eskatzea; Euskal Herrian euskararen alde egiten diren ekimenak gurean ere ezagutaraztea; eta oro har Leitzan euskara alderdi eta maila guztietan nagusi dadin aritzea...

Baina helburu hauek bete daitezen , eta mendez mende egundaino iritsitako hizkuntza gure ondorengoei ere heldu dakien, denok hartu behar dugu elkar, bakoitzak ahal duen pixarra eginez, gure-gurezko komunikabideari (euskarari) eutsiz, eta nonahitik heldu zaigun hizkuntza hispano-amerikanoa ahalbaitean utziz.

"Gure hizkuntza galtzen uzteko bezain odolgalduak ez gara" dio Amurizaren bertsoak. Ba ote da gure artean odolgaldurik? Odola edozein koloretakoa duzula ere, animo!, eta etorri guregana; lanerako gogoa eta irudimena aski diren lantegi honetara.

# LEITZE, LEIZE ETA BESTE GEZUR KONTU BATZUK

Etxen sekretario esaten dittea, nonbatt sekretu asko izaten baitittot gordeta; eta, ajola aundirik ez bazaizue, orain ere etxekoai arrazobea eman eta ze etxetakoa naizen eta nor naizen ixiltzera noa. Txutxen-txutxen esanen dizuet, ordea, onea zertara eldu naizen.

Leitzetik kanpo bizi naiz aspaldi eta gustora gañez, leitzarren berri izateko gogo aundirik gabe. Orain berriroko baten, ordea, osaba Fraxku etxera bazkaldar etorri eta sokaldeko maien yolasa sortu zen: Leitze gora eta Leitze bera, eta Leitze gora eta bera. Eta ni, lenago esan dizueten bezala, Leitzekin franko aspertue. Baño, badakizue, gure bazkaritan ezta Mañeruko ardorik falta izaten eta artan ere poliki ekin bear izan nion, ozpinduko ez bazen. Beraz, bazkalondorerako zepelduxe neoan, eta itsu-itsun sartu nitzen diskutio latz artan.

Bai. "Bere izena nondik eldu den ikasi nai ez duen errik ez dezake atarramentu onik" zioen osabak. Nik, egia esateko, enuen zakardi artara sartzeko batere asmorik; aski nuen beste basokada bat ardo nereganatu eta uda asierako eguzkitik babestearekin. Baño –zergatik ez dakit– osabak esandako ark gogorazio zarrak ekarri zezkiden. Esaterako, Leitze = leize berdintasune itten duen astakirtenan xalotasune gogorarazi ziden. Esaterako.

Kasualidadez, ardoa gordetzen dugun ondoko apalean iztegi zar bat zegoan, eta –ezin neri gauz onik bururatu!– liburu ure irekitzea erabaki nun.

Au ere kasualidadez, bi itzekin egin nun topo:

*Leiza: "lija, pez marino del orden de los selacios"*

*Leize: "Haitzulo guztiz sakona, sakontasun guztiz handi eta arriskutsua"*

Ez batak ez bestek, arrazobeok eniñuen asebetetzen, ordea, eta, Fraxku osabaren akullue gogoan, Leitzerako bidea artu nun, artzak iltzeko eskopeta saietsen eta zezenplaza añeko ixpixko-lupa zar bat poltsan, L E I T Z E onen bost soinun arten izkutatuteko arrazobearen zañeri tira itteko txirrintakin.

Buruzpide ori ittea etorri nitzen, beraz, baña bidenabarren beste itz askoren zañek ere arrotu nittun, gustoa badozo, irakurle, labur-laburrean azalduko dazkizotenak:

Leitzen ia denak Eguzkizko muño esaten dioan mendi bet bada. Ara! Alere, J.M. Elosegik erakutsi didanez, an ingurun laoztiz izeneko larre bat izaten da; eta artxibon batetik-edo lauztarizko barrena delako izena re bildu emen do. Ara nondik eldu den gure Eguzkizko erromantikoa! Bai. Elosegiri gauz asko ikasi dazkiot.

Onek berak esana dakit, adibidez, Arizmendin gaur egun Kosa, Kosaundi edo Joxe, Joxaundi izaten direnak Korrosan izenetik eldu direla. Orain: nei ez galdetu onen jatorririk e! Bueno, galdetzea libre da.

Ixpixkoan aritzeko lupazar berarekin Kornieta izenan zañe oso-osorik ateratzea. lortu nun. Militarrek –turuturuturu!– Korneta izena erabiltzen emen due beren mapan, baño, ziñez esateko, zañek ezto ez Kornieta-rik ez Korneta-rik esaten. Izan ere, aspaldiko paperak salatzen duenez, Gorranegieta da izen orren jatorrie. Ni enaiz araño iritsi baño Kornieta ori Berutako mugan dagoan mendi-kaskoa dela esan dittea. Oain gain-gañen aize errota bat patu emen dioa. Egie ta fedea, Ezkurreko legea.

Leku-izenen zurrunbillotik etxe-izenen asuntora pasaz, Atsotegieta edo Atsotieta izenak atsoakin deus esatekorik ez dula ikasi diot Elosegiri. Onetxek esan didanez, Arsotegieta da paperetan azaltzen den izen zarra. Eta azken onen jatorrie? Arsoro ote da?

Komenigarrie iduríttu zat, alaber, duela urte batzuteko Plazaolan Patziku Perurenak Artxikone izenari buruz esandakoa gogoraraztea. Izan ere, paper zarretan ark Artxakone > Artxekone > Artxikone billakaera aurkittu emen baito. Nor ote zen aspaldiko Artzako edo Artxako ure? Erdiaroan beti ere, Nafarroan Arzco ("Artz ttiki") izena usu izaten emen zen.

Joseluis Huarte ere baten ta besten aztarrike ibili izandu de, eta onetxei ikasi dazkiot Tardo eta Torre etxe izenai buruzko oarrok. Lenengoa Dardo omen zen 1612.urten. Bestea Dorrea 1650ean eta Torre 1726an. Nolanai ere, itsuk ere ekus lezake, baten zein besten, d zarra eta t berrin arteko aldaketa, ezta?

Bestalde, guren z > tx billakaera oso arunta izaten da (esaterako zalaparta > txalaparta, zakur > txakur...), eta ori bera ikusi bear dela iduritzen zat Txubia eta Txubitane etxe izenetan. Aurrenekoa Zubiatik eta bestea Zubieta, Zubietane-tik. Oain yakintsuk erabaki dezatela.

Enpin. Eta Leitze-rekin zer da? Nora larratu dittugu izen onen zañe ateratzeko esperantzak? Ameika sasi-poeta, maisu-maistra, mozkor eta inoranterekin itz egiñe nauzue, baña eztire Leitze = leize ortatik auntze iristen. Belaskok dioenez, 1192ko paperetan Leitza et Aresso eta 1268koetan Leyçarasso izenak azaldu dire. Oañiken argi geigo, beraz, Leitza =Leitza berdintasunaren alde.

Euskaldun guzik filologoak gala esan izan da, eta balitteke ala izatea. Balitteke leitzar bakoitzeko Leitzeri buruzko etimologia bana izatea, baña ni aztarren orren bille ibili naizen denboran eztot besterik aittu. Zotalen nabil. Etsik artute. Kakiñe. Eta atzera bildurrak noa Fraxku osabangana, nere eziñe ekusite zer betarterekin artuko ote nauen-edo ekustera.

SASILARROSA

Kaixo eta ongi etorri Leitzatar guztioi biotz biotzez. Berriro ere zuekin bat egin nai nuke ataltxo onen bidez, eta urte bat geiagoz, zer da motibo berezia? Denok dakiguna, San Tiburtzio pestak gain gaiñean ditugula. Orixe esatea aski dala uste det, gauzak ulertu aal izateko bakoitzak derizkion modura.

Leitzako Udaletxeak, programa edo egitarau zabala atera naiko du, beti bezela aurten ere, eta osatzen saiatu bear da pulamentuz, jendeak jakin dezan aurrez, egitaraua irakurrita, zein egunetan zer jaialdi dauden izentaturik. Ala seguruago emango ditu pausoak, kanpotik dijoanak batez ere, ta errian bertarako ere mesedegarri izan liteke ori, batere dudarik gabe.

Nik ondo ezagutzen det Leitza, pestak antolatzen oso goi maillakoa dala badakit, eta jende umoretsua gaiñera. Naparroan aipamen aundiko erria degu gure Leitza, beraz, pozik egon gindezke lur bedeinkatu ontan jaio ta azi giñan guztiok.

Aurtengo programa edo egitarauak, bai ote du aldakuntza berezirik? Baliteke agian, baiña ni neroni, aurreko urteetakoaren antzekoa izango dalakoan nago: Udaletxeko plaza itxita, goizetik zezenak bota barrura ta, aiek toreatzen gozatuko dira mutil gazte batzuek, sasoi ona daukatenak eta gaua parrandan pasa dutenak, bero beroan. Plazaren inguruko etxeetako balkoi ta leioak berriz, denak jendez beteta, gainezka, zezen pesta bukatu bitartean. Eta gero txaranga ibiliko da kalez-kale erriaren alaigarri, egunez egun tokatzen zaion garaian, baiña ordu juxtuetan bakarrik ez, dantzan eta saltoka dabiltzanak aspertu arte. Eguerdian kirolak, arrijasotzaille, aizkolari ta abar... Leitzan, bertako seme indartsuak ikusiko dituzte araiño urbiltzen diranak. Eta gero bazkari tajuzkoa etxe edo famili bakoitzean, ori seguru samar diot orain arteko martxaren berri dakidalako. Ta ostatuetan zer gertatzen da? Iñundik iñolaz ezin ase gosez eta egarriz, ordu txarretan dabillen jendetza ugaria, denak batera jan edo edan nai, ta etengabeko eskeari nola erantzun serbitzari asko egon arren!

Egunezko nekea astuna baldin bada, gauezkoa ez da ariñagoa izango. Baiña oraingoz behintzat, gaupasak modan jarriak daude ta segi aurrera, gaztetasuna nagusi alde denetan. Pertsonak bere baitan izan lezakeen gauzarik ederrena nere ustez, beraz, eutsi goiari Leitzatarrak. Orixe opa dizute zuen senide dan Lasarte bertsolariak.

Ni Orion bizi naiz, baiña Leitza gogoan dedala ainbat urtetan pozez eta ilusioz bertsotan egin det, Leitzako San Tiburtzio pestetan. Baiña betikorik ez da iñor ikusten degunez, nik nere garaian eman ditut eman bearrekoak, eta kito. Baiña bertsolaritza ez da galduko, sortu baidira gure ordeko landare berriak, ugari antzean zorionez, oiek eutsiko diote zutik erri bakoitzaren zaletasunari.

Beraz, onenbestean bukatzen da nere aurtengo idazlana, ea datorren urtean berriro zerbait egiteko moduan izaten geran. Agur eta besarkada bero bat Leitzatar denontzat batera.

Guraso zarrak genitun
elizkoi gartsuak
ta oraindik segitzen
du lengo kutsuak
gaur ere badire Leitzan
Krixtau Fedetsuak
beroientzat egin nai
nituen bertsuak.

Siñismena sendotzeko
ona da otoitza
Fedez betor elizara
datorren bakoitza
San Tiburtzio zuk egin
bitartekaritza
Jainkoak bedeinkatu
dezan gure Leitza.

**OARRA:** Bi bertso auen musika edo doiñua, Maritxu nora zoaz ez letorke gaizki, ala nai izanik.

Manuel Lasarte

# HOGEI GALDERA LABUR

- Euskalduna sentitzen al zara?
- Zer da zure ustez euskalduna izatea?
- Noizbait saiatu al zara euskara ikasten?
- Beharrezkoa al da euskara ikastea?
- Etxean denok al zarete euskaldunak?
- Zuen artean (gurasoak) euskaraz ala erdaraz hitz egiten duzue?
- Eta umeei?
- Irakurtzen al duzu zerbait euskaraz, zenbat, zer?
- Umeek helduek baino hobeki hitz egiten al dute?
- Zergatik ote da?
- Noizbait erreparatu al duzu gure atton-amonen hizkera?
- Nola sentitzen zara gustorago, euskaraz edo erdaraz hitz egiten duzunean?
- Euskara beste edozein hizkuntza bezala hartzen al duzu?
- Nola erantzuten duzu telefonoz? Si... Bai...
- Gauza bera al da, Buenos días, ala Egunon esatea?
- Zer iduritzen zaizu, euskaldunak izanda erdaraz hitz egitea?
- Zortzi lagun, bat erdalduna, nola hitz egiten duzue?
- Euskara salbatuko dela pentsatzen al duzu?
- Nola, edo zer egin beharko genuke?
- Gure eskutan al dago, edo beste norbaitek egiteko kontua al da?
- Hau ez duzu test psikologikoa, baina zeure buruari galdera hauek bana bana egitea eskatuko genizueke.
- Zerorrek atera kontuak, orain, festetan eta festa ondoren.

I.K.A.

Leitzako euskaltegia

# ITTURRIZAHARRA

Gu eskola motikoak ginenean Porttolon mojak (madre Elvirak) askotan eramaten giñozen Itturrizaharrera errekreora. Orduan bi tubotatik ateratzen zen ura. Tubo bat itxi ezkero bestetik sekuleko ziztun ateratzen zen ura eta bazter guziak zirtatu eta litse haundia egiten zuen lurrean. Holako deabrukeriak eginez ibiltzen ginen batak bestea izutzen.



Bazen yendea alorrean erbillean ari eta hara yoaten zena hango ur hotza edan eta aska txiki hartan eskuak freskatzera. Oialdeko belatsoetan hankazpiak minberatu eta izerdi patsetan belarrean ari zirenei ez zitzaien nahi ordurako itzultzen uraren eske bialdutakoa. Ondoko askan hamaika garbiketa eginak eta majinabat lixue yoak labadora aurreko emakumeak!

Bi aldeetan esertalkiak dirudite harri hauen zokoak bai al dakizue zertarako ziren? Lehenago etxeetan ur korrienterik ez zenean edo edateko ur freskoa nai zutenean iturritik perradaz ekartzen zuten ura. Ba zoko hauetan suko hautsa edukitzen zuten eta emakumeak uretara yoaten zirenean perradaren kobrezko uztaiei brilloa ateratzen zien, hautsa trapu batekin hartu eta igurtziaz.





ASTAITZ

# "UIL" URTE BAT UDALETXEAN AZALDU GABE

1997 ko Uztailaren 12an ETA-k PP-ko zinegotzia zen Miguel Angel Blanco hiltzen zuen. Berehala, herritarren suminduraz baliatuz, Itunen inguruan bildu ohi ziren alderdi politiko guztiek HERRI BATASUNAren aurkako lintxamenduari ekin zioten. Iruñean, adibidez, egoitzaren atea bertan behera botatzen saiatu ziren, nahiz beren "despistean" ondoko etxeko ate bat bota zuten. Aurrerago HERRI BATASUNA-ren aurka ezezik Euskal Herriaren ezaugarriei ere ekin zieten, elkarteetan zintzilik zeuden ikurriñei su emanez eta txikitzuz, adibidez.

Lintxamendu egoera hori Leitzara ere ekarri nahi izan zuten. Leitzar gehientxuenek ezker abertzaleari erasotzeko Madrildik PP-k eta Victoria Prego kazetariak egindako deialdiari bizkarra eman bazioten ere, UIL-ko zinegotziak "Babieca" zaldiaren gainean eseri eta, el Cid Campeador bailiran, bost lantza luze eskutan zutelarik Udaletxean azaldu ziren:

1.- QUE SE RETIRE DE LOS BALCONES O VENTANAS DE LA CASA CONSISTORIAL TODO AQUELLO QUE CONTRAVENGA LA LEY.

2.- QUE SE RESPETE EL ESCUDO DE LEIZA SITUADO EN EL CENTRO DE LA PLAZA Y QUE TODAS LAS PAREDES QUE CORRESPONDAN A LA PLAZA DEL AYUNTAMIENTO ESTEN LIBRES DE PINTADAS Y DE PANCARTAS.

3.- QUE TODAS LAS FACHADAS DEL PUEBLO ESTEN LIBRES DE PINTADAS Y CARTELES. PONER LOS MEDIOS NECESARIOS PARA CONSERVAR EL PUEBLO LIMPIO.

4.- QUE TODOS LOS ESCRITOS O DOCUMENTOS QUE VAYAN DIRIGIDOS A LOS HABITANTES DE LEIZA SEAN EN BILINGÜE.

5.- HASTA TANTO NO SE CUMPLAN ESTAS PROPUESTAS, EL GRUPO UIL HA TOMADO LA DECISION DE NO ASISTIR MAS A NINGUN PLENO NI COMISION.

Y PARA QUE CONSTE FIRMAMOS LA PRESENTE: SILVESTER ZUBITUR, BEATRIZ ZABALETA, GERARDO CABALLERO.

LEIZA A 26 DE JULIO DE 1997.

Indar poliko guztiek dute, zalantzarik gabe, bere proiektu politikoak eta beren proposamenak Udalean aurkezteko eta defenditzeko eskubidea. UIL/ PP-k ere, noski. Baina kargu publiko guztiek egiten duten lana publikoa denez, kritika publikoa jaso dezakete eta hori da, hain zuzen, lerro hauen bitartez egin nahi duguna.

Aurrenik, UIL-koek beren benetako aurpegia azaldu dutelako pozik gaudela esan nahi dugu. Leitzako arazoak konpontzeko soilik aurkezten direla esaten digute hauteskundeetan, ez dutela politikan sartu nahi eta ez direla politikan sartuko ziurtatuz. Baina honetan mozorroak erori egin zaizkie eta kargu politiko bezela azaldu dira denon bistan.

Bigarrenik, leitzarrei mesede ttikia egiten digutela esan nahi dugu herritar multzo handi bati gure ahotsa isilaraztea eskatzen dutenean. Nori egingo lioke mesede kartelak erretiratzeko aginduak? Zein kartel kendu beharko litzateke? AURRERA elkarteak edota JUBILATUEN elkarteak jartzen dituztenak adibidez, kendu beharko lirateke ere? Tarteka Goardia Zibilek kartel batzuk kentzen dituzte. Hori al da UIL-k bultzatzen duen demokrazia mota? Edo soilik ezker abertzaleak jartzen dituen kartelak dira erretiratu beharko liratekeenak? Franco diktadorearen garaietara eraman nahi gaituztela dirudi, abertzaleei ilea moztu, herri erditik arrastaka "paseatu" edo tiroz garbitu egiten ziren egun haietara.



PLAZAOLAKO ALDIZKARIA

